

1. AURKEZPENA

Nafarroako Errege Artxibo Orokorrean, dokumentu-segida ugarien artean, askotariko edukia duten kodexen eta kartularioen bilduma bat gordetzen da. Horren barruan dago *Allegaciones iuris*¹ izenburuko kodexa, zeinak XVII. mendeko eta XVIII. mende-hasierako oso askotariko auzi-kontuei buruzko 82 alegazio, informazio eta irizpenen bilduma jasotzen duen. Guztira 537 folio dira, josita eta pergamino-azalez koadernatuta. Nafarroa modernoko «Zuzenbidearen araberrako idatzizko paper»ei buruzko iturri garrantzitsuena bada ere, argitaragabe dago eta, Tuterako ondasun tronkaleen oinordetzari buruzko alegazio bat izan ezik², ez du inork aztertu. Kodex horren argitalpena eskaini nahi dugu lan honen bitartez, atariko azterketa hau aurretik emanda. Korpus hau argitaratzeak literatura prozesalaren iturri hain ezezagun, zail eta nahasia nolabait argitzen lagunduko duelakoan gaude, eta haren azterketa bultzatzea lortuko³.

Lan honi 2009an ekin genion *Allegaciones iuris. Colección de alegaciones, informaciones y dictámenes jurídicos del Archivo General de Navarra (siglo XVII)* izenburuko ikerketa-proiektuaren barruan. Gregorio Monreal Zia irakasleak zuzendu zuen proiektu hori, eta argitalpen honen bi egileek parte hartu genuen (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, 2009-2011, DER2008-05985-C06-06/JURI). Nafarroako Errege Artxibo Orokorrak proiektu horren barruan kodex osoa digitalizatu zuen ere; ikertzaile guztiek iturriaren bertsio digitala eskura dezakete gaur egun horregatik. Lan hori *La articulación institucional en la Monarquía hispánica de los territorios sin representación en Cortes en el Antiguo Régimen (siglos XV a XIX)* izeneko ikerketa-proiektuan amaitu dugu, Juan Baró Pazos irakasleak zuzenduta (Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa, 2014-2017, DER2013-41569-P).

Monreal eta Baró irakasleei gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu. Haien proiektuen bidez lan hau burutzea lortu genuen. Beraiekin batera Santos M. Coronas aipatu behar dugu, alegazio juridikoen gure ikerketen bultzatzailea.

¹ NAO, *Códices y Cartularios*, 11. lib.

² JIMENO ARANGUREN, Roldán eta RICO ARRASTIA, M^a Iranzu, La sucesión de los bienes troncales en Tudela (Navarra) a la luz de un dictamen jurídico de finales del siglo XVII, *Ius Fugit*, 17 (2011-2014), 191-210. or.

³ Eduardo CEBREIROSek kalifikatzaile zuzen horiek ematen ditu alegazio juridikoei dagokienez: Aspectos generales de los porcones sobre vínculos y mayorazgos custodiados en la Biblioteca Nacional de Madrid, *Ius Fugit*, 17 (2011-2014), 153. or.

Margarita Serna irakaslea ere hor izan dugu beti, ikerketa proiektu hoietan parte hartu dugun ikertzaile guztien kate-maila izan delako.

Lan honen transkripzio zaila eta neketsua, Ana San Miguelek egindako zuzenketa eta ohar baliotsuekin aberastu egin da; berarekin oso eskertuak gaude. Gure lanaren lehenengo zirriborroak ere Hipolito Ricok orraztu zituen. Liburua berari eskeintzen diogu.

2. ALEGAZIO JURIDIKOAK

Behe Erdi Aroz geroztik eta aro liberalaren hasierara arte, alegazio juridikoek paper garrantzitsua hartu zuten erresuma hispanikoen auzitegi-literaturan. Jakin badakigu Gaztelan garapen handiena XVI. eta XVIII. mendeen artean lortu zutela, eta Nafarroan XVI. mendeari buruzko azterketarik ez badugu ere, *Allegaciones iuris* kodexak aditzera ematen du Gaztelakoaren antzeko egoera zegoela. Bi erresumetan alegazioak gainbehera etorri ziren pixkanaka XVIII. mendearen erdialdetik aurrera⁴.

Alegazioen garrantzia *Ius commune* delakoaren zabaltzeak eragin zuen, baita prozesu-eredu berri bat ezartzeak ere, non arrazoibide juridiko horiek garrantzi berezia hartu zuten. Alegazioen helburua zen defendatutako aldearen uziek epaiketari aurrera egitea. Oinarri erromatar eta kanonikoen eredu prozesal berriari abokatuek alegazio juridikoak erabiltzen zituzten bezeroen jarrera argudiatzeko eta defendatzeko tresna eraginkor modura⁵. Alegazioen bitartez, abokatuek beren postuluak argudiatzen eta defendatzen zituzten, eta arrazoibide juridikoak ematen zituzten magistratuei auzilarietako baten interesak sinetsarazteko. Prozesuaren edozein unetan aurkez zitezkeen ahozko alegazioak ez bezala, idatzizkoak amaieran baino ez zeuden baimenduta. Arrazoibide juridikoari buruzko idatzi horiek epaiaren aurretiko prozesuko azken egintza modura aurkezten ziren. Antonio Planasek gogorarazi duenez, jarduketak amaituta, autoak helarazten zizkieten aldeei, eta ikustaldirako hitzordua jartzen zieten. Azken fase horretan abokatuek argudio juridikoak ahoz azal zitzaizketen auzitegiaren aurrean edo, hala eskatzen bazuten, zuzenbidearen arabera idatz zitzaizketen; hau

⁴ Cfr. CORONAS GONZÁLEZ, Santos, Alegaciones e informaciones en Derecho (porcones) en la Castilla del Antiguo Régimen, *Anuario de Historia del Derecho español*, 73 (2003) 190. or. Mallorcan, ordea, gainbehera askoz geroago gertatu zen, izan ere, 1870eko hamarkadan «oso bizirik zeuden». Vid. PLANAS ROSELLÓ, Antonio, Las alegaciones jurídicas y otros papeles en derecho (Mallorca, siglos XVI-XIX), *Ius fugit*, 17 (2011-2014), 117. or.

⁵ SERNA VALLEJO, Margarita, Alegaciones jurídicas, papeles en derecho o porcones. Aproximación a una fuente poco conocida para la historia del Corregimiento de las Cuatro Villas de la Costa, in C. Galván Rivero eta J. Baró Pazos (koordinatzaileak), *La utilidad de los archivos. Estudios en homenaje a Manuel Vaquerizo Gil*, Santander: Kantabriako Unibertsitatea, 2011, 244. or.

da, alegazio bat idazten zuten defendatzen zuten aldearen uzia oinarritzen zen egitateak zein argudio juridikoak azaltzeko⁶.

Carlos Tormok, XVIII. mendeko Valentziako alegazioei buruzko ikerketak oinarri hartuta, adierazten du ezen, oro har, alegazio juridikoak apelazioan eta ondorengo auzialdietan bakarrik aurkeztuko zituztela, ez baitira ohiko epaitegietan agertzen⁷, eta, antza denez, egoera bera dago Nafarroan.

Alegazio idatziak ez ziren prozesuaren funtsezko zatitza hartzen. Frogaketen eta izan zitezkeen auto-laburpenen (autoei lotutako memorialak) eta konklusio-idazkiaren ondoren egon ohi ziren. Zuzenbidearen arabera idatzizko alegazio horiek ez ziren funtsezko zati bat, baina maiz sartzen zituzten auzia epaiaren bidez erabaki aurretik⁸. Auzilari bakoitzaren abokatuak horrelakoak idazten zituen epailearen aurrean frogatzeko auzian aplikatu beharreko legeriaren, doktrinaren eta jurisprudentziaren gaineko jakintza eruditua zituela eta horiek ongi zekizkiela.

Nafarroan argitu gabe daude oraindik auzitegietako alegazioen gaineko izaerari, eginkizunei eta erabilerari buruzko alderdi asko. Erresuma horretan, Aragoiko Koroan, Frantziar edo Italian bezalaxe, ia ez dago alegazio juridikoei buruzko legeriarik⁹. Zuzenbide erkidea Justizian erabiltzearen lehen lekukotasunak Karlos III.a erregearen *Ordenanzas de la Cort* liburuan daude (1413). Haren 42. kapituluak tokiko zuzenbidea lehenesten du zuzenbide erkidearen aurrean (oinarri erromanistako zuzenbide kanoniko eta zibila), baina debekatu gabe. Ordenantza horiek ez dute ezer xedatzen, ordea, alegazio juridikoei dagokienez¹⁰. Baina araudi erregulatzailerik ez egoteak ez zuen eragotzi Gorte Nagusiko Auzitegian oinarri erromatar eta kanonikoko prozesua sendotzea, eta horren ondorioz alegazio juridikoak gero eta gehiago erabiliko ziren epaiketetan, horrelakoak araututa egon ez arren. Nafarroa Gaztelako Koroara gehituta, Nafarroako lurretan zuzenbide erkidea erabili eta onartzeko zegoen ohitura onartu zuen Iruñeko Gorteen 1576ko xedapen batek, eta lege-indarra eman zion¹¹.

⁶ PLANAS, Antonio, Las alegaciones jurídicas y otros papeles en derecho, *op. cit.*, 112. or.

⁷ TORMO, Carlos, El derecho en las alegaciones jurídicas del siglo XVIII, *Saitabi*, 50 (2000), 279. or.

⁸ TORMO, Carlos, El abogado en el proceso y la argumentación en los informes jurídicos del XVIII, *Ius Fugit*, 10-11 (2001-2002), 1099. eta 1102. or.

⁹ SERNA VALLEJO, Margarita, El régimen legal de las alegaciones jurídicas en la Corona de Castilla y en los reinos de Navarra y de la Corona de Aragón en la Baja Edad Media y en la Época Moderna, *Ius Fugit*, 17 (2011-2014), 20. or.

¹⁰ MONREAL ZIA, Gregorio eta JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Textos histórico-jurídicos navarros, I. Historia antigua y medieval*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2008, 60. zk., 484-509 or.

¹¹ MONREAL ZIA, Gregorio eta JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Textos histórico-jurídicos navarros, II. Historia Moderna*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2011, 75. zk., 357. or.

Nafarroako alegazioei buruzko legeria berantiarra da. Baliteke atzerapen hori gertatzea herritarrek kontra egiten zitelako Gaztelako zuzenbideari eta zuzenbide erromatarra jasotzeari, batez ere prozesu zibiletan, baina, baita, zuzenbide erkidean prestatutako abokatuek errege-legeriari aurre egiten ziotelako ere, azken horrek haien interesak eta eskumenak murriztu nahi baitzituen¹². XVII. mendearen erdialdean alegazioei buruzko bi xedapen labur daude. Lehena 1644ko Iruñeko Gorteak egitearen kariaz. Erresumak eskatu zuen, nolabaiteko larritasuna zuten auzietan, epaileek aukera izatea alegazio egokiak egiteko baimena emateko, baldin eta alderdien abokatuek emandako informazioa jaso nahi bazuten; alegazio horietan abokatuek «zuzenbidearen araberako idatzizko informazioak berrogei eguneko epean aurkeztu beharko zituzten, auzia epairako prest gelditzen zen unetik zenbatzen hasita. Eta epe hori betetzeko, aldi berean eskatu zuten auzien errelatoreek jaso zezatela, eman beharreko informazioetan, auzia epairako prest noiz gelditu zen». Epe hori laburtu zuten geroago. Izaera arautzailea baino murriztailea duen arau horrek «alegazioak auzi larrietara» mugatzen zituen eta «epaileen esku» uzten zuen «horiek eskatzeko eta ondoren aurkezteko erabakia»¹³.

Bigarren xedapena, 1692ko Gorteei dagokiena, auzietan atzerapenak saihesteko eman zuten. Epeak jarri zizkieten berriz ere auzilariei zuzenbidearen araberako idatzizko alegazioak edo zedulak aurkezteko, ondorengo luzapenak onartu gabe. Adierazitako epetik kanpo informazioak aurkezteko debekua nabarmendu zuten berriz¹⁴.

Zuzenbidearen araberako idatzizko paperei buruzko Nafarroako araudi urriak ez du ezkututzen horiek prozesu judizialean izan zuten garrantzia, izan ere, Margarita Sernak adierazten duen moduan, alegazioek oso antzeko garrantzia hartu zuten Gaztelan eta Nafarroan, non auzitegiek epaiak arrazoitzen ez zituzten, Katalunian, Aragoian, Valentzian eta Mallorcan ez bezala, azken erresuma horietan auzitegiek aurkako jardunbidea izan baitzuten¹⁵.

Nolanahi ere, Nafarroan epaiak arrazoitzen ez zituztenez eta auzitegi-genero biltzailerik ez zegoenez –Kataluniako Printzerrian, adibidez, zegoenaren

¹² SERNA VALLEJO, Margarita, El régimen legal de las alegaciones jurídicas, *op. cit.*, 36-38. or.

¹³ 1644ko Iruñeko Gorteak, 2. legea, 4. kapitulua. ELIZONDO, Joaquín de, *Novísima Recopilación de las Leyes del Reino de Navarra hechas en sus Cortes Generales desde el año de 1512 hasta el de 1716 inclusive* Donostia: Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonomico de Vasconia, 2009, II. liburukia, 2. liburua, 19. tit., 10. legea, 4. zk., aipatuta hemen: SERNA VALLEJO, Margarita, El régimen legal de las alegaciones jurídicas, *op. cit.*, 37-38. or.

¹⁴ 1692ko Lizarrako Gorteak, 22. legea, *Novísima Recopilación, op. cit.*, 2. lib., 19. tit., 19. legea, aipatuta hemen SERNA VALLEJO, Margarita, El régimen legal de las alegaciones jurídicas, *op. cit.*, 38. or.

¹⁵ *Ibidem*, 40. or.

antzera–, alegazio juridikoak ezinbesteko iturri bat dira aplikatutako legeria eta argudiatutako doktrina ezagut ditzagun. Horregatik, Nafarroan esan daiteke, Europako beste lurralde batzuen antzera, alegazio juridikoek lortutako garrantziak «lotura handiagoa duela askotariko interpretazioei bide ematen zieten eskubideak indarrean egotearekin, eta ez horrenbeste epaiak arrazoitzeko eskakizunarekin», Serna irakasleak egoki adierazitakoaren arabera¹⁶.

3. ALEGAZIOEN EGILEAK ETA KODEXAREN BILTZAILEA IZAN DAITEKEENA, DOMINGO DE AGUIRRE ABOKATUA

Kodexean bildutako alegazioen erdiak Domingo de Aguirre abokatuarena dira. Beste hamabiren egilea ezezaguna da, eta gainerakoak honako abokatu hauek sinatuta daude: Acedo¹⁷, Juan de Alcantud, José de Anoz, Rafael de Balanza, José Baquedano, Luis de Beaumont, Juan de Beruete y Corella, Antonio Chavier, Juan de Don Guillén, José de Echauri, Luis Enríquez, José de Guapegui, Iguerategui¹⁸, Francisco de Irigaray, Miguel de Lerma, José Llorente, José de Mañeru, Miranda¹⁹, Juan Montero de Espinosa, Munilla²⁰, Luis de Mur, Francisco de Ochoa, Ramírez de Noaguera²¹, Ribas²², Ulzurrun²³, Antonio de Vicuña, Pedro Villanueva, eta Pedro Volante de Almurza. Abokatu horietako gehienak tuterarrak ziren edo hiri horretan jarduten zuten, Nafarroako kodexean jasotako alegazio gehienak han landu baitzituzten, eta gutxi batzuk baino ez Iruñean (9), Madrilen (1) eta Calahorran (1).

Begira diezaiogun Domingo de Aguirre lizentziatuari; 40 alegazio egin zituen, haietatik 38 berak bakarrik sinatuta²⁴ eta bi gehiago bi abokaturekin ba-

¹⁶ *Ibidem*, 49. or.

¹⁷ Ez da izenik adierazten.

¹⁸ Ez da izenik adierazten.

¹⁹ Ez da izenik adierazten.

²⁰ Ez da izenik adierazten.

²¹ Ez da izenik adierazten.

²² Ez da izenik adierazten.

²³ Ez da izenik adierazten.

²⁴ NAO, *Códices y Cartularios*, 11. lib., 1aur.-8ifr. fol. (63. zedula); 9aur.-12aur. fol.; 13aur.-18aur. fol. (93. zedula); 21aur.-44aur. fol. (97. zedula); 46aur.-47ifr. fol. (65. zedula); 48aur.-60ifr. fol. (79. zedula); 62aur.-67ifr. fol. (78. zedula); 68aur.-69aur. fol. (77. zedula); 70aur.-71ifr. fol. (76. zedula); 72aur.-75ifr. fol. (75. zedula); 76aur.-79ifr. fol. (74. zedula); 80aur.-91ifr. fol. (73. zedula); 92aur.-97ifr. fol. (72. zedula); 98aur.-103aur. fol. (71. zedula); 104aur.-105ifr. (70. zedula); 107aur.-108ifr. (69. zedula); 109aur.-109ifr. fol. (68. zedula); 113aur.-115ifr. fol. (66. zedula); 117aur.-120ifr. fol. (64. zedula); 121aur.-126aur. fol. (62. zedula); 127aur.-128ifr. fol.; 129aur.-130aur. fol. (49. zedula); 133aur.-136aur. fol. (84. zedula); 137aur.-141ifr. fol. (83. zedula); 143aur.-158ifr. fol. (82. zedula); 159aur.-159ifr. fol. (81. zedula); 160aur.-160ifr. fol.; 162aur.-167ifr. fol. (80. zedula); 168aur.-181ifr. fol. (86. zedu-

tera²⁵. Hark bakarrik egindako hiru alegaziotan Antonio Paredes²⁶, José de Baquedano²⁷, Antonio de Chavier eta José de Colmenárez²⁸ izenak ere ageri dira, horiek haren informazioa berretsi eta osatu baitzuten.

Aguirrek egindako alegazioen kopuru handia ikusita, Kodexa abokatu horrexek, berak erabiltzeko, egin eta bildu zuela pentsatzekoa da. Antonio Planas Rossellók adierazten duenez, antzera sortutakoak dira hiru abokatuk eskuz idatzitako Mallorcako hiru bolumen, Mallorcan gorde direnak²⁹.

Ez ditugu ezagutzen Domingo de Aguirreren oinarrizko biografia-datuak (jaiotza, heriotza, ezkontza...), baina, aurreko azterlan batean adierazi dugun moduan³⁰, abokatu horren bizitza ezagut liteke Tuterako artxiboetako funtsak aztertuz gero, betiere egiaz hiri horretakoa bazen. Haren prestakuntza akademiakoa ere jakin liteke, Gaztelako unibertsitatearen bateko legeen eta kanonen fakultate batean lortutakoa seguruenik; unibertsitateko titulu horri esker *Ius communeren* ezagutza sendoak izango zituen, eta erresumako zuzenbidea ikasiz osatu egin zuen, hori beharrezkoa baitzen Nafarroako Kontseiluan abokatu izan ahal izateko, eta odol-garbitasuna frogatu beharra ere izango zuen, gainera³¹. Etorkezunean azterketa horri heldu ahal izatea espero dugu. Datarik ez duten Kodexeko bi alegaziok Domingo de Aguirreri buruzko informazioaren bat ematen dute zorionez: bata dio Nafarroako Errege Auzitegietakoa abokatua eta Inkisizioaren Ofizio Santuaren aholkularia izan zela, eta egiaztatzen du hogeita hamasei urte zeramatzala abokatu-lanetan, Errege Kontseiluaren aginduak betetzen «insakulazio»en, egoitzen eta bestelako gaien eginkizunetan; Tuterako erregidore eta alkatea ere izan zen³²; eta zuela gutxienez zazpi urtetik –itsutasunagatik– senideen eta semeen laguntza izaten zuen lanbide horretan (haietako bat Auzite-

la); 182aur.-183ifr. fol. (90. zedula); 184aur.-186aur. fol. (89. zedula); 189aur.-190ifr. fol. (87. zedula); 191aur.-194ifr. fol. (92. zedula); 195aur.-200ifr. fol. (91. zedula); 203aur.-213aur. fol. (98. zedula); 219aur.-222ifr. fol. (94. zedula); 223aur.-226ifr. fol. (61. zedula); 493aur.-498ifr. fol.

²⁵ NAO, *Códices y Cartularios*, 11. lib., 111aur.-112ifr. fol. (67. zedula) eta 131aur.-131ifr. fol. (85. zedula).

²⁶ NAO, *Códices y Cartularios*, 11. lib., 76aur.-79ifr. fol. (74. zedula).

²⁷ NAO, *Códices y Cartularios*, 11. lib., 129aur.-130aur. fol. (49. zedula).

²⁸ NAO, *Códices y Cartularios*, 11. lib., 191aur.-194ifr. fol. (92. zedula).

²⁹ Antonio Planas Rossellók gauza bera sumatu zuen Mallorcako Josep Joan Vinyals, Pedro Cayetano Domenech eta Antoni Nadal Guasp abokatuek eskuz idatzitako bildumei zegokienez. Abokatu horiek kideen alegazioak kontsultatu ohi zituzten, baina ez zen ohikoa prozesuetan haietara berariaz jotzea. PLANAS, Antonio, Las alegaciones jurídicas y otros papeles en derecho, *op. cit.*, 120-122. or.

³⁰ JIMENO ARANGUREN, Roldán eta RICO ARRASTIA, M^a Irazu, La sucesión de los bienes troncales, *op. cit.*, 195. or.

³¹ *Ibidem*.

³² Tuterako alkatea izan zen 1693tik 1694ra bitartean. *Gran Enciclopedia Navarra*, Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1990, «Tudela» hitza.

gietako abokatua zen, eta beste bat abokatu-laguntzailea legetan³³). Bigarren alegazioan jasota dago Aguirre Tuterako alkateen aholkularia izan zela eta epai bat indargabetzeko eskatu zuela ikusmen nahikorik ez izateagatik; horretarako aipuetan argudio juridiko burutsuak baliatu zituen eta bere egoera konparatu zuen beste ogibide batzuetan zegoenarekin³⁴. Kodexaren 1702ko bi alegaziok urte hartan oraindik jardunean zegoela pentsarazten dute. Antza denez, beste iturri batzuk ikusita, Fiteroko alkatea ere izan zen, eta hainbat olerki argitaratu zituen 1687an, betiere Fiteroko Domingo de Aguirre hura tuterarra ez den beste pertsonaia homonimo eta garaikidea ez bada³⁵.

Baldin eta, *Allegaciones Iuris* kodexa, hain zuzen, Aguirre abokatuak egin bazuen auzietan egin beharreko argudiatze juridikoa errazteko, baliteke bilduma pribatua hori egin zuela corpus hori bilduta eduki beharra izan zuelako areagotzen ari zitzaien itsumenaren ondorioz. Kodexa Aguirreren lanaren adierazgarri zen, eta lan hau era berean, bere seme abokatuari utzi zion ondarea zen. Bali-teke seme hori edo beste pertsona bat izatea Kodexa alegazioak bilduz gauzatu zuena, Domingo de Aguirre bera ez baitzegoen hori egiteko moduan, ikusmenik ezagatik.

Beste abokatuen alegazioak agian hautatu zituen kideek nola argudiatzen zuten jakin nahi zuelako Aguirrek eta, gainera, berarentzat interes profesional berezia zuten auzi haiek hobeto ezagutu nahi zituelako; *communis opinio doctorum* edo *auctoritas* delakoa gai horietara eramateko adibide egokitzat jotzen zituen seguruenik. Aguirrek ongi ezagutzen zituen eta miresten zituen auziak izango ziren. Ez zen ezohiko zerbait³⁶.

4. KODEXA

Aurreratu dugunez, Kodexak XVII. mendeko eta XVIII. mende hasierako 82 alegazio juridiko ditu; gehienak gaztelaniaz daude –baina zenbaitetan latinezko aipu luzeak tartekaturik daude–, eta gutxi batzuk latinez. Alegazio luzeak dira, oro har. Bai pergaminozko azaleztatzea bai paperezko folioak kontserbazio-egoera onean daude; ez dago informazio-hutsunerik, hortaz, zuloak daudelako edo folioak osorik ez daudelako.

Euskarriari dagokienez, pieza idatziak ondoren edozein kodexetan gordezko zergatik hautatu zituzten jakitea da era horretako iturriak Erdi Arotik nola

³³ NAO, *Códices y Cartularios*, 11. lib., 117aur.-120ifr. (64. zedula).

³⁴ NAO, *Códices y Cartularios*, 11. lib., 46aur.-47ifr. (65. zedula).

³⁵ Vid. SIMÓN, José, *Bibliografía de la literatura hispánica. Apéndices, volúmenes 5-6*, Madril, 1973, «Aguirre, Domingo» hitza, 543. or., 2835 eta 2836 zenbakiak.

³⁶ Aurretik aipatu dira eskuizkribu horiek eta haien erreferentziak.

sortu ziren jakiteko bidea³⁷. *Allegaciones Iuris* kodexa, lege pribatuen bildumen antzera, sortu zen abokatu biltzaileak ezinbesteko lan-tresna bat, era sistematizatu batez, eskura edukitzeko interesa zuelako. Baina hori alde batera utzita, azaleztatzeak berak, Erdi Aroko kartularioen modura, aditzera ematen du gordetzeko asmo argia zegoela; nolabaiteko segurtasun-kopia bat zen, material horiek gal ez zitezen³⁸. Laburbilduz, kodex hau, alegazioen beste bilduma batzuen antzera, abokatu biltzaileari baliagarri zitzaion antzeko beste auzi batzuen defentsa planteatzeko orduan jo ahal zuen tresna gisa, eta alderdi espezifikoei buruzko legegintzako eta jurisprudentiako aipuen multzo on bat edukitzeko³⁹; horrez gain, lanbidean jardun zuen urteetan zehar lortutako esperientzia profesionalaren beraren adierazgarri ere bazen.

Testuak hurrenkera kronologikorik gabe daude elkartuta –kodexetan ohi-koa dena Erdi Arotik⁴⁰–, baina alegazio bakoitzaren goiko ertzean adierazitako zedulen zenbakiaren arabera ere ez daude ordenaturik. Aurkibiderik ere ez dute, kasu batean izan ezik. Kodexaren multzoa zenbaki arabiarretan foliatu edo zenbakituta dago. Halaber, alegazioak ez daude kodexean antolatuta irizpide tematiko bati edo haien gaietara jarraituz, ezta testuen egilearen arabera ere.

Alegazioak folioaren bi aldeetan daude eskuz idatzita, bat izan ezik, inprimatuta baitago. Azken hori Kodexaren 61. zedula da, eta alderdi demandatzaileak aldeko epaia lortzeko aurkeztu zuen *propter nuptias* dohaintzari buruzko auzi edo demanda batean. Pentsatu beharra dago auzitegiari idatziz aurkeztu ziotela bigarren edo hirugarren auzialdian, haren abokatu, prokuradore edo letratuak aurreko alegazio batzuk berresten zituelako eta, horiek, esan bezala, lehen auzialdian ahozkoak ziren eta eskuz idatziak –edo inprimatuak– bigarren eta hirugarren auzialdian. Zenbaitetan aurkako aldearen «alegatu»ei (alegazioak) erantzuten die, orobat, horiek ezeztatze eta aldeko argudioak aurkezteko epai zuzena emanaz ebatzi behar zuten magistratuen aurrean. Alegazioaren amaieran abokatuaren izena ageri da (Domingo de Aguirre), baina ez dago sinatuta. Auzitegiaren aurrean aurkeztutako jatorrizkoaren kopia bat da seguruenik, edo agian ondoren inprimatu zuten magistratuek azter zezaten, edo zabaltzeko edota etorkizunean erabili ahal izan zedin gordetzeko. Gogorarazi behar dugu alegazio inprimatuek, oro har kontu handiagok egin ohi zituztenek,

³⁷ Cfr. CLANCHY, Michael T., *From Memory to Written Record: England 1066-1307*, Oxford; Cambridge, AEB: Blackwell, 1993.

³⁸ Cfr. RODRÍGUEZ DÍAZ, Elena, Los cartularios en España: problemas y perspectivas de investigación, in E. Rodríguez Díaz eta A. C. García Martínez (argit.), *La escritura de la memoria: los cartularios*, Huelva: Huelvako Unibertsitatea, 2011, 28. or.

³⁹ TORMO, Carlos, El derecho en las alegaciones jurídicas del siglo XVIII, *op. cit.*, 293. or.

⁴⁰ HERREROS LOPETEGUI, Susana, Estudio introductorio, in *Códices y cartularios. Tomo III. El Cartulario Magno del Archivo Real y General de Navarra*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2016, 32. or.

garrantzi berezikotzat hartzen zuten testua gordetzeko xedea zutela, izan ere, Antoni Jordàk adierazi bezala, XVII. mendean alegazioak edo memorialak inprimatzeari utzi zioten horren kostu handiagatik, eta garrantzi edo prestigio handiko auziak baino ez zituzten inprimatu⁴¹. Antonio Planasek defendatzen du, gainera, alegazioak inprimatzean asmoa ez zela horiek jakinaraztea, baizik eta doktrina-argudio horiek aditzera ematea garaiko gizartean oihartzun handia zuten auzietan eta esparru judiziala gainditzen zuten eztabaida eragiten zutenetan⁴².

Kodexa nola egin zuten ezagutzen ez dugun modu berean, ezer ere ez dakigu kodex horrek denboran zer bizitza praktikoa izan zuen. Uste izatekoa da Domingo de Aguirrek lan-jarduerako azken urteetan zein haren semeak erabiliko zutela. Ez dakigu, orobat, kodex pribatu hori Nafarroako Errege Artxibo Orokorren bildumara nola iritsi zen.

5. ALEGAZIOEN EGITURA

Letraduak alegazio juridikoaz egiten zuen azalpenak bi atal izan ohi zituen: egitatea eta zuzenbidea. Lehena, laburragoa izaten zena, auziaren eta eztabaidaren oinarri ziren gertaeren azalpen txikia zen, eta auzialdi horretan bertan edo aurreko auzialdietan egindakoa ere adierazten zuten. Egitate horiek eta haien frogek eragiten zituzten zalantzak ere biltzen zituen. Bigarren atalean, zuzenbidearenean, legeriako eta doktrinako argudioak azaltzen zituzten eta, batzuetan, jurisprudentziakoak, eta agertutako zalantzak argitzen saiatzen ziren justiziak beren alde egin zezan. Hartarako, egitatei buruzko interpretazio juridikoa egiten zuten, beren interesen aldekoa. Batzuetan alderdiaren uzi nagusia eta hura oinarritzen zen egitateak eta oinarritzko arrazoibideak gogorarazi eta justifikatzeko tarte bat uzten zuten azken lerrokadan.

Bi atalen arteko bereizketa argi hori –egitate eta zuzenbidearena–, halere, ez zegoen kodexaren alegazio guztietan, haietako batzuetan nahasita baitzeuden egitateen azalpena eta zuzenbidearen araberrako argudioak.

Gaztelako alegazioetan ohikoa zenez, Nafarroakoak ere hasten ziren aurrez aurre zeuden alderdiak aurkeztuz; adibidez: «*Por Pedro contra Domingo Martínez y Águeda de Pueyo, su mujer, se informa lo siguiente*» (Pedrok Domingo Martínezen eta Águeda de Pueyo emaztearen **aurka** honako hau jakinarazten du). Etengabe errepikatzen den egitura da: *por* (alderdiaren izena), *con* (kontra-

⁴¹ JORDÀ, Antoni, Alegaciones jurídicas del siglo XVII en Cataluña. La obra de Josep Ramon, *Ius fugit*, 17 (2011-2014), 59. or.

⁴² PLANAS, Antonio, Las alegaciones jurídicas y otros papeles en derecho, *op. cit.*, 122-123. or.

ko alderdiaren izena) *sobre* (eztabaidaren gaia). Egitura hori dela eta, alegazioei *porcones* izena ere ematen zaie.

6. ALEGAZIOEN EDUKIA

Kodexen bildutako alegazioen gaiak Erriberako gai juridikoak dira gehienbat, eta, proportzio txikiago batean, Nafarroako beste zonalde batzuenak. Alegazioen edukien aberastasunak Nafarroako zuzenbide pribatuaren funtsezko alderdiei buruzko ikerketak bultzatuko ditu eta, neurri txikiagoan, zuzenbide publikoak. Familia- eta ondorengotza- zuzenbidearekin zerikusirik dituzten alegazioak nabarmentzen dira eta, hauen artean, bereziki interesgarriak dira ezkontzako dohaintzekin, ezkonsari itzultzearekin, legitimekin, anaitasun testamentuekin, enborreko ondareen norakoekin, aurreko seme-alaba naturalen eskubideekin, abintestato ondoregotzen efektuekin, etab., zerikusirik dituztenak. Zuzenbide zibileko beste alor batzuk jorratzen dituzten alegazioek ere arreta berezia merezi dute, besteak beste domeinuko eta jabetzako tipoen ingurukoak, aginduaren baldintzena, edo ohituraren eta aginduaren arteko erlazioenak. Gai penaleko alegazioak gutxiago dira, nahiz eta batzuk bereziki aberatsak izan: estupro-delituaren baldintzei buruzkoa edo hilketaren akusazioarekiko erlazio-natutako beste bat. Domingo de Aguirrek interés handia izan zuen Elizaren auzigaien alegazioak jasotzeko. Hori dela eta, Kodexa aberatsa da hainbat gaien inguruko ikerketak burutzeko: kapilautzak, kofradiak, lehentasunak, botere publikoaren eta Elizaren arteko jurisdikzio-gatazkak, etab. Alegazioetako batzuk, gainera, ezinbesteko iturria dira historia lokalaren ikerketarako, Tuteraren historiarako singulariki, baina baita beste leku batzuetarako ere, adibidez, alegazio batean Tulebraseko komentuararen jatorrien eta bilakaeraren gainean ikerketa zehatza egiten da; edo, beste batean, Zugarramurdiren Baztan contra egiten duena alegazio juridikoan, herri horretakoek defendatzen dute haranekoa auzotarrak ez zirela, baizik Urdazubi-ko monasterioko basailuak.

Alegazioen bidez alderdien, edo gutxienez haietako baten, justizia-helburuak agertu nahi zituzten epaiketetan, haien eskubide eta interesak ere kontuan hartuta. Argudio horiek legerian eta agintarien iritzietan oinarritzen zituzten, baina baita zuzenbideko printzipio orokorretan, zuzenbide naturalean, arrazoian eta arau moral eta erlijiosoetan ere.

Alegazioek Nafarroako erresumako berezko arau-esparruari egiten diote erreferentzia, hau da: Nafarroako Foru Orokorra, Filipe III.a Evreuxkoaren 1330eko Hobekuntza, Karlos III.aren 1418ko Hobekuntza⁴³, Foru Murriztu

⁴³ Nafarroako Foru Orokorra, Filipe III.a Evreuxkoaren 1330eko Hobekuntza eta Karlos III.aren 1418ko Hobekuntza hemen argitaratu genituen: JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Los Fueros de Navarra*, Madril: Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado, 2016.

*non natoa*⁴⁴ eta Gorteetako legeria; askotan aipatzen da hori Sindikoen Bilduma⁴⁵ eta Bilduma Berria⁴⁶ aipatuta. Horrez gain, ohiturazko zuzenbidera ere jotzen da; oso garrantzitsua da hori Nafarroan, eta, beste erresuma batzuetan bezala, zuzenbidearen araberako paperetako arrazoibide juridikoetan erabilitako erreferentzia-iturria izan zen⁴⁷.

Alegazioetan argudiatutako doktrina bereziki interesgarria da, funtsezkoa baita Nafarroan *Ius commune* nola hartu zuten aztertzeko. Espero dugu *Allegaciones Iuris* kodexaren argitaraldi hau lagungarria izango dela etorkizunean XVII. mendeko Nafarroan zuzenbide erromatarra eta kanonikoa nola hartu zuten azter dezaten, harrigarria bada ere, arlo hori ez baitute inoiz jorratu. Gaztelan⁴⁸ eta Aragoiko Koroan⁴⁹ gertatzen den bezala, Nafarroako alegazioetan lehen mailako autoreak aipatuta daude, Accursio, Bártolo de Sassoferrato, Baldo de Ubaldo, edo Panormitano abadea, adibidez, baina legelari espainiarren aipua agertzen dira batez ere: Castillo de Bobadilla, López de Palacios Rubios, Luis de Molina, Covarrubias edo Hevia Bolaños, Gaztelako Koroakoak, eta Mieres edo Fontanella, Aragoiko Koroakoak, besteak beste. Zalantzarik ez dago kasu horretan, Gaztelako Koroarekin bat egin ondoren Nafarroako erresumak bere zuzenbidea eta erakundeak atxiki bazituen ere, Gaztelan argudiatutako doktrina-iturrien eragina nabaria izan zela. Nafarroako letraduek jasotzen zuten unibertsitateko prestakuntza da horren arrazoa.

⁴⁴ Argitaratzailea: OSTOLAZA ELIZONDO, María Isabel, *El Fuero Reducido de Navarra*: edición crítica, in *El Fuero Reducido de Navarra (Edición crítica y Estudios)*, II, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1989, 107-520. or.

⁴⁵ SADA, Pedro de eta MURILLO Y OLLACARIZQUETA, Miguel de (biltzaileak), *Las Leyes del Reyno de Navarra, hechas en Cortes generales, a svplicacion de los tres Estados del, desde el Año 1512 hasta el de 1612. Reducidas a svv debidos titvlos y materias, por el Licenciado Pedro de Sada, y Doctor Miguel de Murillo y Ollacarizqueta, Síndicos del dicho Reyno. Dirigidas al bien comvn, y buen gobierno de las ciudades, villas, valles, y lugares del mismo Reyno, por mandado de los tres Estados del*, Nicolás Asiáin, Iruñea, 1614.

⁴⁶ CHAVIER, Antonio (biltzailea), *Fueros del Reyno de Nauarra desde su creación hasta su feliz unión con el de Castilla, y Recopilación de las leyes promulgadas desde dicha unión hasta el año de 1685, recopiladas y reducidas a lo sustancial, y a los títulos a que corresponden, por el licenciado D. Antonio Chavier, Abogado de los Reales Consejos, y Auditor General de la gente de Guerra de dicho Reyno, sus fronteras y comarcas. Con prólogo e índices copiosos de Fueros y Leyes, en que se declara su principio, progreso, y tabla de los vocablos más oscuros de dichos Fueros para su mejor inteligencia*, Iruñea: Gregorio de Zabala, 1686.

⁴⁷ Cfr. SERNA VALLEJO, Margarita, *Alegaciones jurídicas, papeles en derecho o porcones*, *op. cit.*, 246. or.

⁴⁸ CEBREIROS, Eduardo, *Aspectos generales de los porcones sobre vínculos y mayorazgos custodiados en la Biblioteca Nacional de Madrid, Ius Fugit*, 17 (2011-2014), 165. or.

⁴⁹ Carlos TORMOK aurretik aipatutako azterketan 55 alegazioen zifra kuantitatiboak ematen ditu, eta haien aipua eta egileak sailkatzen ditu (*El derecho en las alegaciones jurídicas del siglo XVIII, op. cit.*, 293. or.).

Jakina da 1559ko Filipe II.aren pragmatikaren ondorioz espainiarrei atzerriko unibertsitateetan ikastea debekatu zitzaizela heresia protestanteak kutsatu ez zitzaizela. Frantziako eta Italiako unibertsitateetara joateko Nafarroako tradizioa eten zen horrela, eta legelari nafarrek, orduz geroztik, Salamanca, Alcalá, Valladolid eta Huescako zentroetan ikasiko zuten, besteak beste. Zentro horiei, 1597tik aurrera, Iratxeko Unibertsitate berria batu zitzaizela, non kanonen eta legeen gradua eskaini zuten⁵⁰. Zentro horrek ez zuen inoiz besteen pareko prestigio akademikorik lortu, eta ez zuen izan Nafarroako doktrina espezifiko bat garatu zuten irakaslerik.

Aipu edo ohar gehienak ez zituzten egin, itxura guztiaren arabera, iturrira zuzenean jo ondoren; aitzitik, aipuen laburpenak edo bildumak erabiltzen zituzten⁵¹, horiek zuzenean inoiz aipatzen ez badituzte ere. Hala bada, alegazio horietan dagoen doktrinan ikus daiteke hainbat autoreren autoritate-argudioa erabiltzen dela norberaren iritzia garrantzia indartzeko tresnatzat, baita gehiegi erabili ere; praktika hori oso ohikoa zen penintsulako erresumetan nagusi zen *mos italicus* delakoan.

Ez dago esan beharrik Nafarroan, Gaztelan bezala, ez dituztela epai judizialak alegazioetan aipatzen. Nafarroako auzitegiek ez zuten epaietan zioak jasotzeko ohiturarik, eta alegazioek ez zuten, horregatik, argudioak agertzeko oinarri dokumentalik; hori dela eta, bada, ez dugu hemen literatura biltzailerik. Hori ez da Aragoiko Koroan gertatzen, garapen handia baitu han doktrina-literatura horrek, bai eta jurisprudentziarako igorpen jakintsuek ere⁵².

7. TRANSKRIBATZEKO ETA AURKEZTEKO IRIZPIDEAK

Paleografia eta Diplomatikako Nazioarteko Batzordeen arauari jarraikiz transkribatu da *Allegaciones Iuris* kodexa⁵³. Puntuazio modernoa eta egungo azentuazioa erabili dira testua ulertzea errazagoa izan dadin. Ez dira garatu ale-

⁵⁰ JIMENO ARANGUREN, Roldán, La Contrarreforma en la Navarra incorporada a la Corona castellana: las instituciones educativas (1515-1630), in J. Arrieta, X. Gil eta J. Morales (koord.), *La diadema del rey. La articulación de Vizcaya, Navarra y la Corona de Aragón en la Monarquía de España (siglos XVI-XVIII)*, Bilbo: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2017, 378-381. or.

⁵¹ Aipuen bildumei dagokien ikus BARRERO GARCÍA, Ana Mariaren funtsezko lan hau: Los repertorios y diccionario jurídicos desde la Edad Media hasta nuestros días (notas para su estudio), *Anuario de Historia del Derecho español*, 43 (1973), 311-352. or.

⁵² CAPDEFERRO PLA, Josep, Práctica y desarrollo del Derecho en la Cataluña moderna: a propósito de la jurisprudencia judicial y la doctrina, in S. de Dios, J. Infante eta E. Torrijano (koord.), *Juristas de Salamanca, siglos XV-XX*, Salamanca: Salamancako Unibertsitatea, 2009, 235-257. or.

⁵³ Hemen argitaratuta: *Folia caesaraugustana*, Zaragoza: Instituto Fernando el Católico, 1984.

gazioetan agertzen diren laburdura ugariak –oso bereziki autore eta lanei buruzkoak–, normalean horrela aipatzen baitituzte iturri horiek, laburpen edo bildumetatik, oro har, hartu zituzten bezalaxe.

Kodexa, aurreratu dugunez, kronologikoki edo gaien arabera ordenatuta ez badago ere, iturriaren sistematikari eustea erabaki dugu; halere, kontsultak errazago egite aldera, alegazioak zenbakitu ditugu eta honako atal hauek dituen fitxa bana egin dugu: a) datazioa eta non egin zuten; b) edukiaren laburpen txikia; c) Kodexaren signatura, alegazio bakoitzaren folioak eta iturriak berak adierazten duen Zedularen zenbakia zehaztuta.